

Cabreraren urpeko historia.

Cabrera ez da uharte bat soilik, artxipelago bat baizik, Mallorcaren hegoaldean kokatua eta hemeretzi uharte ñimiñoz osatua. Besteak bezala, Cabrera ere Mallorcako Levante mendizerraren luzapen bat da.

Kostaldeak 40 kilometro eskas ditu, eta bertan labar malkartsuak, hareazko hondartzak eta harri bilduzko kalak eta senadiak tartekatzen dira.

Kareharrizko izaera dela-eta, prozesu karstikoak dira kostaldeko erliebearen modelatzaile nagusiak. Haizeak eta urak, eta batez ere denborak lantzen dituen haitzuloz zipriztindutako harrizko hormak, inoiz amaitzen ez den lan bat bailitzan. Uraren pazientzia infinituak harrian sortu eta desegin egiten ditu formak, eguzkiaren argi eta beroa iristen ez den leku horietan.

Uhartean ez da inor bizi izan garai batzuetan, eta beste batzuetan, biztanle gutxi batzuk izan ditu. Baliabide urritasunak ez du inoiz 50 lagun baino gehiagoren bizibidea ahalbideratu.

Bere historian zehar Cabrera beti izan da ekaitzen aurrean itsasontzientzat babesleku, nahiz eta bere porturako sarrera arriskutsua izan ipar haizeak jotzen duenean. Horregatik arrantzaleen lanbidean, halabeharraren aldakortasunari itsasoaren ziurgabetasuna gehitu behar zaio.

Cabreran gizonak beraien arbasoak joan ziren bezala joaten dira itsasora. Tresmail arrantzak, beste arrantza arte tradizionalak bezala, maisutasun eta trebetasuna eskatzen ditu, zehaztasuna eta zortea, azkartasuna eta patxada. Eskuak saretik kanaberara pasatzen dira, askotan, bilatzen dutenaren orde, bertatik igaro ziren beste itsasontzi batzuk, beste gizon batzuk, utzitakoa jasotzen duten sareak uretara botatzeko.

Sarritan, uhartea astintzen duen ipar haizearen indarraren testigu dira kostaldetik gertu dauden hondoetan aurkitzen diren garai guztietako kroskoak, eta orain itsasoko biztanleei ostatu ematen dieten anfora formadun historia zatitxo horiek.

Garai batean zehar, uhartearen erabilera militarra izan zen diru-gosearen aurrean uharteak izan zuen babesik onena, eta 1991ean Cabrera Artxipelagoko Itsas eta Lurreko Parke Naturala izendatzeak mugatzen ditu bai uharte eta bai itsasoaren erabilpenak.

Zelatari eta babesle funtzio hori lehenago Es Castell gazteluak betetzen zuen. XIV. mendean eraiki zuten portuaren parean, uhartea pirata berbereengandik babesteko. Aurrerago Bailen-en harrapatutako frantsesen espetxe izan zen. Eta bere dorre handiak beti egon izan dira adi, zeruertzean, Conills uhartearen siluetan, islatzen ziren itsasontziak zaintzen.

Ia mende batean zehar, uhartea mahatsondoak landatu eta bodega bat jarri zuen familia baten jabego izan zen. Es Celler bodega gaur museo bilakatu da, eta Cabrerako historia kontatzen du. Uharte sendoa, ia aldatu gabea, itsaso eta haizearen soinu eta isiltasunera itzulia.

N'Ensiola itsasargiak aspalditik ematen du argia Llebeig lurmuturrean. Eguzkiak, ezkututzean, itsasoa eta Cabrerako historia guztia gorritz tindatzen dituen leku bat. Giza handinahikeriatik babestuta.